

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako Gobernuak gaurko bilkuran onartutako beste gai batzuk

*Nafarroako Gobernuak gaurko bilkuran onartutako beste gai batzuk  
Izendapena eta desafektazioa Zarrakaztelun*

Asteazkena, 2019.eko martxoak 6

### **Gobernuaren Idazkaritzako eta Araugintzako Zerbitzuaren zuzendari berria**

Gobernuak gaurko bilkuran foru-dekretu bat onartu du, eta, horren bitartez, María Belén López Carballo, Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barne eta Justiziako Departamentuko Gobernuaren Idazkaritzako eta Araugintzako Zerbitzuaren zuzendari berri izendatu da.

### **Desafektazioa baimendu da Zarrakaztelun**

Nafarroako Gobernuak gaurko bilkuran hartutako erabakiaren bitartez, Zarrakazteluko Udalaren 2.967 m<sup>2</sup>-ko herri-lurraren desafektazioa onartu da, herriko 5. poligonoan kokatua.

Helburua da lur hori erabiltzen "Agrícola San Isidro de Carcastillo, S.Coop" kooperatibari uztea, landa bat egiteko. Lagapenaren epea 20 urtekoa da, eta epe horretan enpresak urtero 163,82 euroko (gehi BEZa) kanona ordaindu beharko du.